

VUELING AIRLINES, SA. ETA ASEGURUEN ETA BERRASEGURUEN EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, SA. ENPRESEN ARTEAN SINATUTAKO BIDAIAKO LAGUNTZA-KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Laguntza Bakarrik

ASEGURATZAILEA

ASEGURUEN ETA BERRASEGURUEN EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, SA. (aurrerantzean EUROP ASSISTANCE) kontratu honetan zehaztutako arriskua bere gain hartuz.

ASEGURUAREN HARTZAILEA

Aseguratuarekin kontratu hau izenpetzen duen **pertsona fisiko edo juridikoa**, eta hari dagozkio handik sortutako betebeharrak, beren izaerarengatik Aseguratuak bete behar dituenak salbu.

ASEGURATUA

Ohiko bizilekua Europako edozein herrialdetan edo Mediterraneo ertzeko herrialderen batean duen pertsona fisikoa, Baldintza Bereziekin lotuta, **VUELING**-ekin hegaldi bat eta hari lotutako laguntza eta balio gabetzeko aseguru hau kontratatzen dituen bidaia hasi baino lehen, haren datuak **EUROP ASSISTANCE**-ri jakinaraziz.

Bi urtetik beherakoak ere aseguratutzat jotzen dira.

ESTALITAKO SENIDE ZUZENA

Aseguratuarenezkontide, dagokion Erregistro ofizialean behar bezala inskribatutako izatezko bikote, guraso, aitagarreba-amagarreba, seme-alaba edo anai-arrebak.

ISTRIPUA

Indarkeriazko, bat-bateko, kanpoko eta Aseguratuaren asmotik kanpo dauden arrazoiengatik sortutako Kontratuaren iraunaldian jasandako gorputz-lesioa edo kalte materiala

BAT-BATEAN IZANDAKO GAIXOTASUNA

Polizak estalitako bidaia batean norbanakoak bat-batean izandako osasun-egoeraren aldaketa eta haren diagnostikoa eta baieztapena legez aitortutako mediku edo odontologo batek egindakoa, eta medikuaren laguntza behar duena.

GAIXOTASUN LARRIA:

Ospitaleratzea dakarren norbanakoaren osasun-egoeratik bat-batean izandako aldaketa oro eta Aseguratuari bidaia hastea eta aurreikusitako datan jarraitzea eragozten diona, edo hiltzeko arriskua ekar diezaiokeena.

EKIPAJEA

Bidaiarako beharrezkoak diren erabiltzeko eta higiene pertsonalerako maleten barnean dauden norberaren arropak eta gauzak

LAPURRETA

Besteenak diren gauza mugigarriak lapurtzea, pertsonen aurka indarkeria edo larderia erabiltzea eta gauzetan indarra erabiltzea.

EBASKETA

Besteenak diren gauza mugigarriak lapurtzea, pertsonen aurka indarkeria edo larderia erabili gabe eta gauzetan indarra erabili gabe.

KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honetan zehaztutako estalduren arriskuen ondorioen, eta Ohiko Bizilekutik at **bidaian zehar** nahigabeko ekintza baten ondorioz sortutako aurka bermatzea, estalitako Lurralde Eremuaren barnean, eta bertan aipatutako mugekin. Kontratuaren bermeek ez dute ondorioz izango bidaia amaitzen denean eta Aseguratu Ohiko Bizilekura itzultzen denean.

BIDAIAAREN IRAUPENA

Bermeak emango dira **VUELING**-ekin kontratatutako hegazkin-txartelaren barruko herrialdeetan, eta gehienez ere 30 egun iraungo dute

OHIKO BIZILEKUA

Aseguratuaren ohiko bizilekutzat jotzen da hegaldiaren kontratazioan jasota geratzen den Europako edozein herrialdetan edo Mediterraneo ertzeko edozeinetan dagoena; handik kontratu honetan estalitako joan-etorriak egingo dira.

ATZERRIA

Bermeen ondorioetarako atzerrizat jotzen da, Aseguratuaren Ohiko Bizilekukoa edota nazionalitatekoa ez den herrialdea.

LURRALDE-EREMUA

Bermeak **VUELING**-ekin kontratatutako hegazkin-txartelaren barruan dauden herrialdeetan emango dira. **One way kasuetan laguntza soilik VUELING-i erositako txartelaren jomuga-tokian emango da. Kanpoan geratzen dira, nolana ere, kontratatutako lurralde-eremuan adierazitako herrialdeak izanik ere, joan-etorrian zehar gerra, matxinada edo edozein mota edo izaerako gatazka belikoen egoeran daudenak, ofizialki hala aldarrikatuta egon ez arren. Kasu horretan EUROP ASSISTANCE-k behar bezala egiaztatutako estalitako gastuak itzuliko ditu, hori egiaztatzen duen jatorrizko fakturarekin.**

FRANKIZIA KILOMETRIKOA

Laguntza, Aseguratuaren Ohiko Bizilekutik 35 kilometrotik aurrera izango da baliozkoa (15 km irletan).

EZBEHARRETAKO IZAPIDEAK

Kontratuan estalitako bermeetako bat emateko orduan gertaeraren bat izanez gero, nahitaezko baldintza izango da ezbeharraren berri berehala ematea 34.91.514.00.10 telefono-zenbakira edo 91.514.99.50 fax zenbakira deituta, edo ezbehar horren berri ematen duen beste bideren bat erabiliz; oro har, berriak kanpoan geratuko dira EUROP ASSISTANCE-ri alde zurretik jakinarazi ez zaizkion prestazioak eta baita dagokien baimena lortu ez duten prestazioak ere.

Ohar hori egitea eragozten duen ezinbesteko kasuan, eragozten duen arrazoia desagertu bezain laster egin beharko da.

Harremana ezarrita, aseguratua honako hauek adieraziko ditu: **izen-abizenak, non dagoen, harremanetarako telefonoa.** Horrez gain, ezbeharraren egoeraren berri nahiz eskatutako laguntza-motaren berri emango du.

Jakinarazpena jasota, **EUROP ASSISTANCE**-k beharrezko jarraibideak emango ditu eskatutako zerbitzua betetzeko asmoz. Aseguratua **EUROP ASSISTANCE**-k emandako jarraibideak bete gabe jarduten badu, **ez-betetze horren ondoriozko gastuak aseguratua kargu geratuko dira.**

Edozein gastu itzultzeko vueling.europ.es webgunera jo ahal izango du eta, han, "On line izapideak" dioen atalean sartu ahal izango da itzultzeko eskaera sortzeko eta izapidearen jarraipena egiteko; edo bestela, Apartado de Correos 36316 (28020 Madrid) helbidera jo. Kasu guztietan ezinbestekoa izango da jatorrizko fakturak eta frogagiriak aurkeztea.

ASEGURATUAK KEXA AGERTZEN DUENEAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

EUROP ASSISTANCE-k Erreklamazio Zerbitzua jartzen du Aseguratuen esku eta haren araudia webgunean kontsulta daiteke. Kexak aurkeztu ahal izango dituzte, aurrekoen edozein hartzaile, aseguratua, onuradun, kaltetutako beste batzuek edo kausadunek, webgunearen "Bezzeroaren Defentsa" atalean, edo Erreklamazio Zerbitzura idatzi bat bidaliz.

Helbidea: Servicio de Reclamaciones
Cl. Orense, 4 – Planta 14
28020- MADRID

Era autonomoan funtzionatzen duen zerbitzu horrek zuzentzen zaizkion idatzizko kexak gehienez ere 2 hilabetetan erantzun eta ebatziko ditu ondorengo legeak betez: ECO/734/2004 Legea, martxoaren 11koa, eta 44/2002 Legea, azaroaren 22koa.

Erreklamazio Zerbitzuaren bidea agortuta, erreklamatuak kexa, Aseguratua eta Pentsio Planen Parte-hartzailearen Defentsarako Ordezkaritzaren aurrean (Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari atxikia) aurkeztu ahal izango du; haren helbidea honako hau da:

Pº de la Castellana, 44
28046- MADRID

SUBROGAZIOA

EUROP ASSISTANCE subrogatzen da, hark emandako zerbitzuen kostu guztietaraino, gertaeren pertsona-erantzule ororen aurkako eta bere esku-hartzea eragin duen aurkako eskubide nahiz ekintzetan, Aseguratuari dagozkion eskubide nahiz ekintzetan. Kontratu honen egikaritzean egindako bermeak beste aseguru-etxe batek, Gizarte Segurantzak edo beste erakunde edo pertsona batek guztiz edo zati batean betetzen dituzenean, **EUROP ASSISTANCE** aseguratua eskubide eta ekintzetan subrogatuta geratuko da aipatutako konpainia edo erakundearen aurrean. Ondorio horietarako, aseguratua **EUROP ASSISTANCE**-rekin lankidetzan aritzeko beharra du edozein laguntza eskainiz edo beharrezkoa jotzen den edozein dokumentu emanez. Nolanahi ere, **EUROP ASSISTANCE**-k aseguratua aldetik garraio-titulua ematea edo eskatzeko eskubidea izango du (treneko txartela, hegazkinekoa...) itzultzeko gastuak **EUROP ASSISTANCE**-ren kontu geratzen direnean.

ERANTZUKIZUNA

Ezbehar bat gertatu ondoren, **EUROP ASSISTANCE**-k ez du Aseguratua hartutako erabaki nahiz jardueri buruzko inolako erantzukizunik bere gain hartuko, bere jarraibideen edota Medikuzko Zerbitzuko jarraibideen aurkakoak direnak.

LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Aseguratua eta **EUROP ASSISTANCE** Espainiako legeria eta jurisdikzioaren mende daude kontratu honen ondorioetarako. Epaila eskuduna izango da Aseguratua Ohiko Bizilekuaren kontratutik ondorioztatutako ekintzak aitortzeko.

BERMATUTAKO MUGAK

Kontratu honen prestazio bakoitzean mugatzat jarritako zenbateko ekonomikoak bidaian zehar metagarriak diren gehieneko zenbatekotzat jotzen dira.

ESTALITAKO BERMEAK

1.- Atzerriko mediku-gastuak.

Atzerrian egindako bidaia batean Aseguratua bat-batean gaixotu edo ezustean izandako istripuaren kasuan, **EUROP ASSISTANCE**-k ondoren zerrendatutako gastuak bermatzen dizkio Kontratua irauten duen edo **10.000 eurorainoko mugarekin**, kontratatutako aldi bakoitzeko eta Aseguratu bakoitzari:

- Medikuen ordainsariak.
- Emandako lehen mediku-laguntza medikuak edo zirujauak errezetatutako sendagaiak. Estaldura horretatik at geratzen dira, alde batetik, hasieran preskribatutako denbora luzatetik ondorioztatutako sendagai edo farmazia-gastuen segidako ordainketa, eta bestetik, izaera kronikoa hartzen duen edozein prozesuri lotutakoak.
- Ospitaleratze-gastuak.
- Tokiko ibilbide baterako mediku batek agindutako ambulanzia-gastuak.

Atzerrian eta bizileku-herrialdean bermatutako zenbatekoak ez dira osagarriak.

EUROP ASSISTANCE-k zuzenean esku-hartzen ez duen kasuan eta gastu horiek berriz itzulgarriak izan daitezzen, jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira; haiekin batera, medikuaren txosten osoa aurkeztu beharko da, bere aurrekariekin, diagnostikoarekin eta tratamenduarekin; hala, bat-batean sortutako gaitzaren izaera ezarri ahal izango da.

Espainiako mediku-gastuen ordainketa kanpoan geratuko da, Aseguratua Gizarte Segurantzako onuradun den kasuetan. Larrialdiko arrazoiengatik Aseguratuak Gizarte Segurantzatik kanpo dagoen ospitale batera eraman beharreko kasuak salbuetsiko dira.

Sortutako gastuak, nolahi ere, EUROP ASSISTANCE-k Aseguratuak eskubidea duen jasotzei subrogatzeko arrazoi izango dira, Gizarte Segurantzaren prestazioengatik edo afiliatuta zegoen aurreikuspen edo aseguratze pribatuko beste edozein araubiderengatik.

2.- Odontologiako gastuak.

“Atzerriko mediku-gastuak” bermearen aplikazioan, haietan zehaztutako mugaren barnean, odontologia-larrialdiko gastuak estalita geratzen dira, **honako hauek salbuetsiz: endodontzia, aurreko tratamenduen berreraikitze estetikoak, protesiak, fundak eta inplanteak, gehienez 60 euro.**

3.- Aseguratuaren Ohiko Bizilekuaren herrialdeko mediku-gastuak.

Bere Ohiko Bizilekuko herrialdean egindako bidaiari Aseguratuak bat-batean gaixotu edo ezustean izandako istripuaren kasuan, **EUROP ASSISTANCE-k**, ondoren zerrendatutako gastuak bermatzen dizkio Kontratuaren iraunaldian eta **650 eurorainoko mugarekin** kontratatutako aldi bakoitzeko eta Aseguratu bakoitzari:

- Medikuen ordainsariak.
- Emandako lehen mediku-laguntzan medikuak edo zirujauak errezetatutako sendagaiak. Estaldura horretatik at geratzen dira, alde batetik, hasieran preskribatutako denbora luzatzetik ondorioztatutako sendagai edo farmazia-gastuen segidako ordainketa, eta bestetik, izaera kronikoa hartzen duen edozein prozesuri lotutakoak.
- Ospitaleratze-gastuak.
- Tokiko ibilbide baterako mediku batek agindutako anbulantziako gastuak.

Atzerrian eta bizileku-herrialdean bermatutako zenbatekoak ez dira osagarriak.

EUROP ASSISTANCE-k zuzenean esku-hartzen ez duen kasuan eta gastu horiek berriz itzulgarriak izan daitezzen, jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira; haiekin batera, medikuaren txosten osoa aurkeztu beharko da, bere aurrekariekin, diagnostikoarekin eta tratamenduarekin; hala, bat-batean sortutako gaitzaren izaera ezarri ahal izango da.

Espainiako mediku-gastuen ordainketa kanpoan geratuko da, Aseguratua Gizarte Segurantzako

onuradun den kasuetan. Larrialdiko arrazoiengatik Aseguratuak Gizarte Segurantzatik kanpo dagoen ospitale batera eraman beharreko kasuak salbuetsiko dira.

Sortutako gastuak, nolahi ere, EUROP ASSISTANCE-k Aseguratuak eskubidea duen jasotzei subrogatzeko arrazoi izango dira, Gizarte Segurantzaren prestazioengatik edo afiliatuta zegoen aurreikuspen edo aseguratze pribatuko beste edozein araubiderengatik.

4.- Gaixoen eta zaurituen osasun-garraioa.

Aseguratuak, bat-batean gaixotu edo istripua badu, kontratuaren iraunaldian eta bere ohiko bizilekua dagoen tokitik kanpora atera izanaren ondorioz, eta bidaiarekin jarraitzea eragozten badio, **EUROP ASSISTANCE-k**, hori jakin bezain laster, bere mediku-zerbitzuaren eta Aseguratua artatzen duen medikuen artean beharrezko harremanak antolatuko ditu.

EUROP ASSISTANCE-n mediku-zerbitzuak Aseguratua Espainiako bere ohiko bizilekutik gertu dagoen ondo ekipatutako edo espezializatutako ospitale batera eramatea baimentzen duenean, **EUROP ASSISTANCE-k** garraio hori larrialdiaren arabera egingo du, honako baliabide hauek erabiliz:

- Osasun-hegazkin berezia
- Lehen mailako trenak.
- Osasun-helikopteroa.
- Anbulantzia
- Linea erregularreko hegazkina.

Osasun-hegazkin berezia, Europako eremu geografikoan eta Mediterraneo ertzeko herrialdetan bakarrik erabiliko da. Medikuen aginduak baino ez dira kontuan hartuko garraioa antolatzeko garaian eta Aseguratua non ospitaleratu behar den erabakitze orduan. Aseguratuak ulean bertan, EUROP ASSISTANCE-ren mediku-zerbitzuak erabakitako baldintzetan, garraiatzea ez badu nahi, erabaki horren ondoriozko berme nahiz gastu guztiak automatikoki etengo dira.

5.- Laguntzaile aseguratuen itzulera aurreratua.

Aseguratua garraiatua izan denean bat-batean gaixotu delako edo istripua izan duelako “Gaixo eta zaurituen osasun-garraioa” bermearen aplikazioan, edo hil egin delako, eta egoera horrek gainerako Aseguratuari beren etxetara itzultzea eragozten badie hasieran aurreikusitako eran, **EUROP ASSISTANCE** haiek garraiatzetik sortutako gastuen kargu egingo da, beren ohiko bizilekuetaraino edo garraiatutako Aseguratua ospitaleratu dagoen tokiraino, horretarako linea erregularreko hegazkin-txartela emanaz (turista-maila), trenaz (lehen maila) edo egokia den beste edozein garraiobidetan.

6.- Gorpuzkinen garraioa.

Kontratu honek estalitako lekualdaketa batean aseguratua hiltzen bada, **EUROP ASSISTANCE-k**, alde batetik, gorpuzkinen garraioa antolatu eta bere gain hartuko du Aseguratuaren Ohiko Etxebizitzaren herrialdeko ehorzte-tokiraino, eta bestetik, baltsamatzearen ondoriozko gastuak, gutxienezko nahitaezko hilgutxa eta administrazio-formalitateak.

Estaldura horrek ez ditu barne hartzen, inolaz ere, hileta-elizkizunak eta ehorztea.

7.-Pertsona baten garraioa ospitaleratuta dagoen Aseguratuarekin egoteko

Aseguratuak, bidaiari zehar, bost egun baino gehiago ospitaleratuta egon behar badu eta senide zuzenik ez badu alboan, **EUROP ASSISTANCE**-k hauek jarriko ditu laguntzaile baten eskura Ohiko Bizilekuaren herrialdetik: linea erregularreko joan-etorriko hegazkin-txartel bat (turista-maila), tren (lehen maila) edo egokia den beste edozein garraibide.

8.-Pertsona baten egonaldia ospitaleratuta dagoen aseguratuarekin egoteko

Aseguratuak, bidaiari zehar, bost egun baino gehiago ospitaleratuta egon behar badu eta senide zuzenik ez badu alboan, **EUROP ASSISTANCE**-k, egonaldi-gastuen kontzeptuan hotela ordainduko du, aurrez dagozkion jatorrizko fakturak aurkeztuz, **100 euro/eguneko eta 10 egunez, gehienez ere.**

9.- Gaixotasun edo istripuarengatik hoteleko egonaldia luzatzea

Bat-batean izandako gaixotasunak edo istripuak Aseguratuari bidaiarekin jarraitzea eragozten dionean, eta klinikan edo ospitale batean sartzea beharrezkoa ez denean, **EUROP ASSISTANCE**-k hoteleko egonaldia luzatzeetik sortutako gastuak ordainduko ditu, mediku batek agindutakoa, **100 euro/eguneko eta 10 egunez, gehienez ere.**

10.- Aseguratuaren itzulera senide bat hiltzen bada

Aseguratuaren Estalitako Senide Zuzen bat Ohiko Bizilekuaren herrialdean hiltzen bada eta kontratu honek estalitako bidaiari batean badago, **EUROP ASSISTANCE**-k, gertakariari berri izan ondoren, ehorzketara joateko (heriotza gertatzen denetik 7 eguneko gehieneko aldiaren) honako hau antolatu eta jarriko du haren eskura: linea erregularreko hegazkin-txartel bat (turista-maila), tren (lehen maila) edo egokia den beste edozein garraibide Espainiako ehorzte lekuraino.

11.- Aseguratuaren itzulera senide bat ospitaleratzen bada

Aseguratuaren Estalitako Senide Zuzen bat Ohiko Bizilekuaren herrialdean ospitaleratzen bada, eta ospitaleratze hori 5 egun baino gehiagokoa izango dela aurreikusten bada, eta kontratu honek estalitako garraio batean badago, **EUROP ASSISTANCE**-k, gertakariari berri izan ondoren, itzulera egiteko honako hau antolatu eta jarriko du haren eskura: linea erregularreko hegazkin-txartel bat (turista-maila), tren (lehen maila) edo egokia den beste edozein garraibide ospitaleratuta dagoen lekuraino.

12.- Atzerriko interprete-zerbitzua

EUROP ASSISTANCE-k aseguruaren eskura jarriko ditu hizkuntza nagusietan (ingelesa, frantsesa eta alemana) telefonoz itzultzeko zerbitzua eta baita interpreteekin harremanetan jartzeko erraztasunak ere.

13. Premiazko mezuak bidaltzea (bermeen ondoriozkoak).

EUROP ASSISTANCE-k, 24 orduko zerbitzu baten bidez, Aseguratuaren premiazko mezuak onartu eta bidaliko ditu, baldin eta haiek beren helbideetara heltzeko beste modurik ez badute, eta kontratuak estalitako berme baten ondoriozkoak badira.

SALBUESPENAK

Berme hauek eten egingo dira Aseguratu bere ohiko bizilekura itzultzen den unean, edo **EUROP ASSISTANCE**-k aberriratu duenean bere bizilekura edo handik hurbil dagoen ospitalera. Oro har salbuetsita geratuko dira, **EUROP ASSISTANCE**-ri aurrez jakinarazi ez zaizkion prestazioak eta baita dagokien baimena lortu ez dutenak ere.

Nolanahi ere, aseguratutako bermeetatik salbuetsita geratuko dira (bermearen barne berriaz sartzen bada salbu) honako hauek sortutako kalteak, egoerak, gastuak eta ondorioak:

1. Aseguratuak bidaiari ekin aurretik izandako gaitz, lesio edo aurretik zeuden edo kronikoak ziren kalteak, baita bidaiari sortzen direnak ere.
2. Aseguratuak bere borondatez **EUROP ASSISTANCE**-k proposatutako eta bere mediku-zerbitzuarekin adostutako osasun-garraioa ukatzea, hura atzeratzea edo aurreratzea.
3. Buruko gaitzak, prebentziozko mediku-azterketak (txekeoak), sendatze termalak, kirurgia estetikoak, hartutako immuno-eskasiaren sindromea eta xede hauek dituzten bidaiari: medikuaren tratamendua edo ebakuntza, medikuntza alternatiboko tratamenduak (homeopatak, naturistak...), tratamendu fisioterapeutikoen sortutako gastuak edota errehabilitatzaileak, bai eta haien antzekoak ere. Halaber, salbuetsita geratuko dira, haurdunaldiaren diagnostiko, jarraipen eta tratamendua, haren borondatezko etetea eta erditzeak, larrialdiko artatzea ez bada behintzat, eta beti seigarren hilabetearen aurretik.
4. Aseguratuak apustuetan, erronketan eta liskarretan parte hartzea.
5. Neguko kirolak praktikatzetik sortutako ondorioak.
6. Lehiaketan edo motordun lehiaketetan (lasterketa edo rally-a) egindako kirolak, baita ondoren zerrendatzen diren ekintza arriskutsuak egitea ere:
 - Boxeoa, halterofilia, borroka (mota ezberdinetan), borroka-arteak, alpinismoa glaziarretan aritzea, leretan irristatzea, arnasteko aparatuekin urperatzea, espeleologia eta eskia tranpolin-jauziekin.
 - Aire-kirolak, oro har.

- Abentura-kirolak, adibidez: rafting-a, puenting-a, hidrospeed-a, arroila-jaitsierak eta antzekoak. Kasu horietan EUROP ASSISTANCE-k soilik esku hartuko du eta Aseguratuak sortutako gastuak bere gain hartuko ditu, hari mediku-zentro batek tratamendu bat jartzen dion unetik aurrera.
- 7. Aseguratuaren suizidioa, suizidatzeko asmoa edo bere buruari eragindako lesioak.
- 8. Pertsonak mendian, siman, itsasoan edo basamortuan erreskatatzea.
- 9. Alkoholdun edari, estupefaziante, droga edo sendagaitik ondorioztatutako gaitzak edo istripuak, azken horiek medikuak agindutakoak izan ez badira behintzat.
- 10. Hartzailearen, Aseguratuaren, edo haien kausadunaren engainuzko ekintzak.
- 11. Biztanlerian bat-batean sortutako eta bizkor zabaldutako epidemiak edota gaixotasun infekziosoak, bai eta poluzioak edota kutsadura atmosferikoak sortutakoak ere.
- 12. Gerrak, manifestazioak, matxinadak, herritarren mugimendu iskanbilatsuak, terrorismo ekintzak, sabotaje eta grebak, ofizialki aldarrikatuta egon ala ez. Atomo nukleoa transmutatzea, bai eta atomo-partikuluen azelerazio artifizialak eragindako erradiazioena ere. Mugimendu telurikoak, uholdeak, sumendien erupzioak eta, oro har, naturaren indarretik sortutako guztiak. Hondamen-izaera duen aparteko beste edozein fenomeno edo egoera, duen tamainarengatik edo larritasunarengatik hondamendi edo hondamen modura kalifikatuko direnak.

Aurrekoa horrela izanik ere, egoera hauek era berezian salbuetsita geratuko dira:

1. "Tokian bertan" tratatu ahal izango diren kalteek edo lesioek sortutako gaixoen edo zaurituen osasun-garraioa.
2. Betaurrekoen eta lentillen gastuak, bai eta hauen erosketa, ezartze-ordeztea, ateratzea edota konpontzea ere: era guztietako protesiak, pieza anatomikoak eta ortopedikoak, lepokoa, esate baterako.